

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

UTE Logistics Araia enpresaren hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkaria-rena. Honen bidez ebazten da 2022-2023-2024-2025 UTE Logistics Araia enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01100772012018.

AURREKARIAK

2023ko azaroaren 24an aurkeztu da, ordezkari honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, 2023ko urriaren 27an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikulua –Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)– dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboak, lan-akordio kolektiboak eta berdintasun-planak erregistratzea eta gordailutzea.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen erregistroa eta enpresa UTE Logistics Araia hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 4a

Arabako lurralde ordezkaria

MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE

Hitzarmen kolektiboa, UTE Logistics Araia enpresaren eta Michelin enpresak Araian (Araba) duen biltegian logistika-zerbitzura (motor produktua) atxikitako langileen artekoa

Hitzarmena adostu duten alderdien zehaztapena.

Hitzarmen hau sinatu dute: sindikatuak ordezkatzuz, Michelin enpresak Araian (Araba) duen biltegian logistika-zerbitzura (motor produktua) atxikitako langileen ordezkaria, ELA sindikatukoa, eta UTE Logistics Araia enpresako zuzendaritza.

1. artikulua. Lurralde-eremua

Hitzarmen honen xedapenak aplikatuko dira Michelin enpresak Araian (Araba) duen biltegian (motor produktua) kokatutako UTE Logistics Araia enpresaren lantokian.

2. artikulua. Langile-eremua

Hitzarmen honek eragiten die logistika-zerbitzuko (moto produktua) UTE Logistics Araia enpresako langileei, lantokia Michelinen Araia (Araba) biltegian dutenei.

3. artikulua. Funtzio-eremua

Hitzarmen honek UTE Logistics Araia enpresaren eta aurrez aipatutako lantokiko langileen lan-harremanak arautzen ditu.

4. artikulua. Hitzarmenaren indarraldia, iraupena eta amaieraren iragarpena

Hitzarmen honek 4 urte iraungo du (2022, 2023, 2024 eta 2025).

Hitzarmen hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko abenduaren 31ra arte luzatuko da eraginkortasuna. Dena den, hitzarmenaren ondorio ekonomikoek 2022ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.

Hitzarmenaren indarraldiak oso-osorik jarraituko du bi alderdiek hori ordeztzen duen beste bat sinatu arte.

Hitzarmen honen amaieraren iragarpena automatikoa izango da, hitzarmena amaitzen denean.

5. artikulua. Hitzarmen honetan itundutako lan-baldintzak ez aplikatzea

Enpresak ezingo du Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan aipatutako prozeduraren bitartez hitzarmen hau aplikatu gabe utzi. Horren ordeztuz, berriro negoziatzen saiatu beharko du, hitzarmena iraungi baino lehen beste hitzarmen bat lortzeko, edo indarrean dagoena berrikusteko, Langileen Estatutuaren 86.1 artikulua aurreikusitakoari jarraikiz.

Dena dela, desadostasunik baldin badago, bi aldeek berariaz adostu dute, PRECO lanbide-akordioaren adiskidetzeari aplikatuko dela desadostasunok konpontzeko. Arbitraje-prozedura ez da aplikatuko bi aldeek prozedura horren mende jartzea erabaki ezean.

Sistema horietara jotzeko bi alderdien adostasuna beharko da, eta berariaz baztertzeko da nahitaezko arbitrajea.

Enpresak hitzarmen kolektiboa aldi batean ez aplikatzea nahi izanez gero (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta), langileen ordezkariarekin akordiorik lortzen ez badu, eta gatazkak konpontzeko prozedurara jota ere desadostasun hori konpontzen ez bada, bi alderdien arteko akordioa beharko da (enpresaren ordezkariak eta langileen ordezkariaren gehiengoa), hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna (Estatutuaren arabera Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoa) ORPRICCEren esku jartzeko.

6. artikulua. Batzorde paritarioa

Batzorde paritario bat eratuko da. Hitzarmena sinatzen duten alderdiek osatuko dute, 2 kidek gehienez: 1 langileak ordezkatzeko, eta 1 enpresa ordezkatzeko.

Batzorde horretako alderdietako edozeinek deialdia eskatzen badu, batzordea hamabost eguneko gehieneko epean bildu beharko da, eta proposatutako gaiak hamar eguneko gehieneko epean konponduko dira.

Eskumen hauek izango ditu batzordeak:

A) Hitzarmen kolektibo honetako edozein arau interpretatzea.

B) Hitzarmen honetan hartutako konpromisoak garatzea.

Batzorde paritarioa ordezkarietako edozeinen 1/3k eskatzen duen guztietan bilduko da, eman zaizkion eskumenak baliatuz.

Batzorde paritarioko sindikatuen ordezkariak bakoitzak eta enpresaren ordezkariak bi aholkulariren laguntza izan dezakete, gehienez ere. Aholkulari horrek hitza izango du, baina ez botorik.

Edozein kidek izan dezake ordezkoa, batzordeari alde aurretik jakinarazten badio.

Batzorde paritarioaren erabakiek balioa izan dezaten, ordezkariak bakoitzaren botoen ehuneko 51ek berretsi beharko ditu.

Batzorde paritarioan sortzen diren desadostasunak, betiere, Lan Gatazkak Judizioz Kanpo Konpontzeari buruzko II. Akordioan (PRECO II) arautzen den adiskidetze-prozeduraren arabera ebatziko dira (2000ko apirilaren 4ko EHAA).

Batzorde paritarioko kide titularrek ordaindutako baimena hartzeko eskubidea izango dute Batzordea biltzen den egunetan.

7. artikulua. Berme pertsonala

Hitzarmena indarrean jartzearekin, urteko zenbaketan hitzarmenean hitzartu dena oro har gainditzen duten egoera pertsonalak errespetatuko dira, eta soldata-kontzeptu bat bera ere ez da onuragarriagoa, konpentsagarriagoa edo xurgagarriagoa izango.

8. artikulua. Maila-igoerak

Lanpostu huts bat baldin badago, enpresaren barruan dauden langileekin betetzen saiatuko da enpresa. Enpresak kasu kasu zehaztuko du barruko izangaiei gaitasunak eta jarrerak ebaluatzeko prozedura, lanpostu hutserako beharrezkoak direnen arabera.

Lanpostu hutsera aurkeztu diren izangaiei egindako proben emaitzak eskuratu ahal izango ditu langileen ordezkariak.

Kategoria horrek aginte-ardura badu, eta enpresak eta interesdunak lanpostuaren erantzukizun horri uko egitea adosten badute, kategoria horretan dagoen langileak aginte-osagarria jasotzeari utziko dio, halakorik bada, eta igoeraren aurretik zeukan kategoriara itzuliko da.

9. artikulua. Errelebo-kontratua

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileek erretiro partzialeko kontratura biltzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen legediari jarraikiz, langileak nahitaezko lege- eta arau-baldintzak betetzen dituenean, betiere.

Behin enpresako zuzendaritzari kontratazio mota horretara biltzeko nahiaren berri emanda, eta baldintzak egiaztatuta, enpresaren esku geratuko da eskaera egin duen langileari erretiro partziala onartzea edo ukatzea.

10. artikulua. Eguraldi txarra

Ofizialki egiaztatutako arrazoi meteorologikoak direla-eta lantokira berandu iristean, hala ziurtatzen duen alde aurreko egiaztagiriarekin, berandutze-orduak enpresaren kontura izango dira.

11. artikulua. Lanaldi arrunta

Lantoki bakoitzaren lan-egutegia bezeroaren beharrianetara egokituko da beti.

Urteko lanaldia benetako laneko 1.688 ordukoa izango da.

Lanaldi oso eta jarraituan lan egiten duten langileek 30 minutuko atsedenaldirako eskubidea izango dute. Atsedenaldi hori benetako lan-denbora gisa zenbatuko da.

12. artikulua. Soldaten ordainketa eta banakapena

12.1. artikulua. Ordainsari-kontzeptuak.

Hitzarmen honetan ordainsari eta kalte-ordain hauek arautzen dira:

- Oinarrizko soldata: hitzarmeneko oinarrizko soldata gisa ezartzen da I. eranskineko soldata-taulan lanbide-kategoria bakoitzerako agertzen dena. Oinarrizko soldata horretan sartuta daude bai hitzarmen-plus zaharra bai errendimendu-plusa.

- Antzinasuna: zerbitzuan emandako 5 urte bakoitzeko antzinasun-kontzeptuan ordainduko da, taula honetan berariaz zehaztutako zenbatekoekin:

BOSTURTEKOAREN BALIOA				
KATEGORIA	2022. URTEA	2023. URTEA	2024. URTEA	2025. URTEA
Langilezaina	62 euro gordin hileko	65 euro gordin hileko	67 euro gordin hileko	69 euro gordin hileko
Mutil edo neska espezializatua	52 euro gordin hileko	55 euro gordin hileko	57 euro gordin hileko	58,5 euro gordin hileko

- Aparteko ordainsariak: hitzarmen honetan aparteko bi ordainsari ezartzen dira, uztailen eta Gabonetan, lanbide-kategoria bakoitzerako soldata-taula erantsietan ezartzen den zenbatekoan, antzinasunaren kontzeptua gehituta. Zenbateko hori ez da aldatuko aldi baterako ezintasunen kasuan. Langilea urtean zehar sartzen bada lanera edo bertatik irteten, lan egindako denborari dagokion zati proportzionala ordainduko zaio.

- Mozkinetako partaidetza: mozkinen ordainsaria hainbanatuko da, eta hilero ordainduko da, erantsitako soldata-taletan lanbide-kategoria bakoitzerako finkatutako zenbatekoan (I. eranskina), antzinasun-kontzeptuaren batura gehituta. Zenbateko hori ez da aldatuko aldi baterako ezintasunen kasuan.

- Gaueko lanaren plusa: 22:00etatik 6:00etara bitartean egindako lanaren gehigarri gisa, zenbateko finko bat ordainduko da ordu bakoitzeko, jarraian azaltzen den taulan espezifikoki zehaztutako zenbatekoekin:

KATEGORIA	2022. URTEA	2023. URTEA	2024. URTEA	2025. URTEA
Langilezaina	2,2 euro gordin orduko	2,3 euro gordin orduko	2,4 euro gordin orduko	2,5 euro gordin orduko
Mutil edo neska espezializatua	1,82 euro gordin orduko	1,9 euro gordin orduko	2,00 euro gordin orduko	2,05 euro gordin orduko

- 4X8 plusa: 4X8 txandan lan egiten duten langileek hilean plus bat jasoko dute, lan-denboraren arabera. Honela:

• 2022. urtea	32,5 euro hileko
• 2023. urtea	45,00 euro hileko
• 2024. urtea	79,00 euro hileko
• 2025. urtea	102,00 euro hileko

13. artikulua. Soldataren funtsezko aldaketa

Lan-baldintzen funtsezko aldaketa egiteko, soldatari dagokionez, (Langileen Estatutuaren 41.1d artikulua), langileen alde aurreko adostasuna beharko da, aldaketak talde bati eragiten badio, edo langile interesatuarena, banakakoa bada.

14. artikulua. Soldata-igoera eta -eguneratzea

ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan izan gabe, soldata-igoerak hemen datozenak izango dira eta, beraz, 2022ko urtarilaren 1eko atzeraeraginezko izaerarekin kobratuko dira:

- 2022. urtea: ehuneko 6,5eko soldata-igoera izango da 2021eko soldata-taularekiko. 2022ko soldata I. eranskinean ezarritakoa izango da.
- 2023. urtea: ehuneko 5,7ko soldata-igoera izango da 2022ko soldata-taularekiko. 2023ko soldata I. eranskinean ezarritakoa izango da.
- 2024. urtea: ehuneko 3,00ko soldata-igoera izango da 2023ko soldata-taularekiko. 2024ko soldata I. eranskinean ezarritakoa izango da.
- 2025. urtea: soldata-igoera ehuneko 3,00koa izango da 2024ko soldata-taularekiko. 2025ko soldata I. eranskinean ezarritakoa izango da. 2023ko eta 2024ko KPla ehuneko 7tik gorakoa bada, ehuneko 7 horrekiko diferentziala 2025. urterako ezarritako ehuneko 3,00ra igoko da, eta taula berriak eratuko dira 2025. urterako.

15. artikulua. Baimenak eta lizentziak

• Aldez aurretik enpresari eskaera eginda, langileak urtean ordaindutako 16 ordu izango ditu 14 urtetik beherako seme-alaba naturalei edo adoptatuei, gurasoei, aita-amaginarrebei eta ezkontideei Gizarte Segurantzako osasun-zentro publikoetako medikuen kontsultara laguntzeko, horretarako ezinbestekoa den denboran, kontsulta langilearen lanaldiarekin bat datorrenean, betiere. Ondoren, justifikatu egin beharko du eta egiaztagirian jasota egon beharko du hitzorduak eta kontsultatik ateratako orduak.

• Langileek –aldez aurretik abisatuta eta ondoren agiri bidez behar bezala justifikatuz gero– bost lanegun izango dituzte ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideen (izatezko bikotearen odol-ahaidetasunezko ahaidea barne) istripu edo gaixotasun larriagatik, ospitaleratzeagatik edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ospitaleratzerik gabeko ebakuntza kirurgikoagatik, bai eta aurrekoak ez diren beste pertsona batzuen kasuan ere, betiere langilearekin etxebizitza berean bizi badira eta horiek benetan zaindu behar badira. 5 lanegun horiek segidan edo solte hartu langileak aukeratuko du, eta ospitaleratzearen hasieran edo ospitaleratzeak irauten duen bitartean hartu ahal izango ditu. Egunak segidan hartzen ez badira, hartzen den bakoitzean justifikatu beharko da lizentziaren gertaera eragilea.

• Bederatzi hilabete baino gutxiagoko seme-alabaren edoskitzeagatik, emakumezko langileek amatasun-baimenari 15 lanegun jarraian gehitzeko eskubidea dute, baimena amaitzean; kasu horretan, amatasunagatikojaren segidan hartuko da, oso-osorik. Biek lan egiten badute, amak edo aitak hartu ahal izango du baimen hori. Hemen araututako edoskitzeko ordu-pilaketa baliatu ondoren eszedentzia eskatzen bada, eta eskatzailea ez bada benetan lanera bueltatzen bularreko haurrak ordu-pilaketarako erreferentetzat hartu den adina bete arte, deskontatu egingo zaio behar ez bezala pilatutako lanaldi-murrizketa.

• Ordaindu gabeko baimena, urtean hilabetekoa gehienez, lanpostua gordeta. Ordaindu gabeko baimen hori ezin izango da zatika hartu, eta talde bakoitzeko bi pertsonak har dezakete aldi berean gehienez. Talde bereko pertsona gehiagok parte hartzen badute, lehenik eta behin, baimena lehenago eskatu dutenek izango dute lehentasuna. Eskatzailearen bati lehenago ukatu bazaio baimena, lehentasuna izango du ordaindu gabeko baimen hori lehenago baliatu duten beste pertsona batzuekiko.

16. artikulua. Genero-indarkeria

Genero-indarkeriaren biktima diren langileak (epai irmoz egiaztatuta) lan egiten ari ziren he- rrian lanpostua uztera behartuta badaude, lehentasunezko eskubidea izango dute enpresak EAEn, Nafarroan edo estatuan duen lantokietako beste edozeinetan hutsik dagoen beste lanpostu bat

hartzeko, talde profesional berean edo kategoria baliokide batean, beraien babesa edo gizarte-laguntza integrala gauzatzeko, eta langileak lantokia aukeratu ahal izango du hainbat lantokitan lanpostu hutsak baldin badaude.

17. artikulua. Sindikatu-orduak

Hilean 16 sindikatu-ordu izango dira.

18. artikulua. Zuzenbide osagarria

Hitzarmen honetan aurreikusten ez den guztirako, Errepideko Salgaien Garraioko Enpresetarako Akordio Orokorrean eta bere garaian ebazpenez onartutako Arabako Errepideko Salgaien Garraioaren eta Garraio Agentzien Sektoreko Hitzarmen Kolektibo Probintzian xedatutakoa aplikatuko da.

19. artikulua. Laneko arropa

Urtero, martxoan, jantzi hauek emango dizkio enpresak langile bakoitzari:

- Galtza pare bat.
- Mahuka motzeko bi elastiko.

Urtero, irailean, jantzi hauek emango dizkio enpresak langile bakoitzari:

- Galtza pare bat.
- Mahuka luzeko bi elastiko.
- Haizetik babesteko jaka bat.
- Txaleko bat.

20. artikulua. Osasun-egoera egiaztatzea

Aldi baterako ezintasuna kudeatzen jarraituko du Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutuak (MATEPSS). MATEPSSek ezarritako berrikuspenetara jotzeko lekualdatu beharra badago, langilea enpresako zuzendaritzarekin harremanetan jarriko da, hitzorduaren eguna eta ordua adierazteko. Halaber, enpresako zuzendaritzak langilearen esku jarriko du garraio-ibilgailu bat (taxia edo enpresako ibilgailua), etxetik hitzorduaren lekura eta handik etxera joateko.

Enpresako zuzendaritzak berariaz uko egiten dio Gizarte Segurantzarekin lankidetzan ez diharduten enpresak kontratatzeari, haien jarduera aldi baterako ezintasunaren jarraipena eta kontrola egitea bada, langilearen osasun-egoera egiaztatzeko, Langileen Estatutuaren 20.4. artikuluan oinarrituta. Artikulu hau aplikatuta, enpresako zuzendaritzak, hitzarmen kolektibo hau sinatzen denetik aurrera, beharrezko diren kudeaketak egingo ditu Tebex enpresak hitzarmen kolektibo honi atxikitako langileen aldi baterako ezintasunagatiko absentismoaren jarraipena eta kontrola kudeatzen jarrai ez dezan.

21. artikulua. Nominari buruzko erreklamazioak

Aldi baterako ezinatsunen ondorioz behar bezala ordaindu ez diren nominak aldeetako edozeinek erreklamatu ahal izango ditu, 24 hilabeteko epean, akatsa antzeman eta enpresa honi jakinarazi zaionetik aurrera.

22. artikulua. Langileak lagatzeko kontratua duten langileak

Aldi baterako laneko enpresen bidez kontratatutako langileek enpresak zuzenean kontratatutako langileentzat hitzarmen honetan jasotako baldintza ekonomiko eta sozial berberak izango dituzte.

23. artikulua. Laneko istripurako prestazio osagarria

Lan-istripu larri edo oso larriaren ziozko aldi baterako ezintasuna gertatzen denean, enpresak osagarri bat ordainduko dio istripua jasan duen langileari. Osagarri horrek, gaur egun indarrean den zenbatekoko prestazioei batuta, benetako soldataren ehuneko 100a bermatu beharko du, bajaren lehen egunetik 545. egunera arte.

Lan-istripu arin baten ziozko aldi baterako ezintasuna gertatzen denean, enpresak osagarri bat ordainduko dio istripua jasan duen langileari. Osagarri horrek, gaur egun indarrean den zenbatekoko prestazioei batuta, benetako soldataren ehuneko 100a bermatu beharko du, bajaren 10. egunetik 14.era eta 210. egunetik 545. egunera.

I. ERANSKINA
Soldata-etaulak

2022. urtea

KATEGORIA	HILABETEKO OINARRIZKO SOLDATA	UZTAILEKO ORDAINSARIA	EGUBERRIKO ORDAINSARIA	HILABETEKO MOZKINEN ORDAINSARIA	URTEKO SOLDATA GORDINA
Mutil/neska espezializatua	1.671,13 euro	1.671,13 euro	1.671,13 euro	139,26 euro	25.067,00 euro
Langilezaina	1.971,60 euro	1.971,60 euro	1.971,60 euro	164,30 euro	29.574,00 euro

- Antzintasun-plusa:
 - Mutil/neska espezializatua: 52,00 euro hileko eta ordainsari guztiak bosturteko bakoitzeko.
 - Langilezaina: 62,00 euro hileko eta ordainsari guztiak bosturteko bakoitzeko.
- Gaueko lanaren plusa:
 - Mutil/neska espezializatua: 1,82 euro orduko.
 - Langilezaina: 2,2 euro orduko.
- 4X8 plusa:
 - 32,50 euro hileko.

2023. urtea

KATEGORIA	HILABETEKO OINARRIZKO SOLDATA	UZTAILEKO ORDAINSARIA	EGUBERRIKO ORDAINSARIA	HILABETEKO MOZKINEN ORDAINSARIA	URTEKO SOLDATA GORDINA
Mutil/neska espezializatua	1.766,40 euro	1.766,40 euro	1.766,40 euro	147,20 euro	26.496,00 euro
Langilezaina	2.084,00 euro	2.084,00 euro	2.084,00 euro	173,67 euro	31.260,00 euro

- Antzintasun-plusa:
 - Mutil/neska espezializatua: 55,00 euro hileko eta ordainsari guztiak bosturteko bakoitzeko.
 - Langilezaina: 65,00 euro hileko eta ordainsari guztiak bosturteko bakoitzeko.
- Gaueko lanaren plusa:
 - Mutil/neska espezializatua: 1,90 euro orduko.
 - Langilezaina: 2,3 euro orduko.
- 4X8 plusa:
 - 45,00 euro hileko.

2024. urtea

KATEGORIA	HILABETEKO OINARRIZKO SOLDATA	UZTAILEKO ORDAINSARIA	EGUBERRIKO ORDAINSARIA	HILABETEKO MOZKINEN ORDAINSARIA	URTEKO SOLDATA GORDINA
Mutil/neska espezializatua	1.819,40 euro	1.819,40 euro	1.819,40 euro	151,62 euro	27.291,00 euro
Langilezaina	2.146,47 euro	2.146,47 euro	2.146,47 euro	178,87 euro	32.197,00 euro

- Antzinasun-plusa:
 - Mutil/neska espezializatua: 57,00 euro hileko eta ordainsari guztiak bosturteko bakoitzeko.
 - Langilezaina: 67,00 euro hileko eta ordainsari guztiak bosturteko bakoitzeko.
- Gaueko lanaren plusa:
 - Mutil/neska espezializatua: 2,00 euro orduko.
 - Langilezaina: 2,4 euro orduko.
- 4X8 plusa:
 - 79,00 euro hileko.

2025. urtea

KATEGORIA	HILABETEKO OINARRIZKO SOLDATA	UZTAILEKO ORDAINSARIA	EGUBERRIKO ORDAINSARIA	HILABETEKO MOZKINEN ORDAINSARIA	URTEKO SOLDATA GORDINA
Mutil/neska espezializatua	1.874,00 euro	1.874,00 euro	1.874,00 euro	156,17 euro	28.110,00 euro
Langilezaina	2.210,87 euro	2.210,87 euro	2.210,87 euro	184,24 euro	33.163,00 euro

- Antzinasun-plusa:
 - Mutil/neska espezializatua: 58,50 euro hileko eta ordainsari guztiak bosturteko bakoitzeko.
 - Langilezaina: 69,00 euro hileko eta ordainsari guztiak bosturteko bakoitzeko.
- Gaueko lanaren plusa:
 - Mutil/neska espezializatua: 2,05 euro orduko.
 - Langilezaina: 2,5 euro orduko.
- 4X8 plusa:
 - 102,00 euro hileko.